

DIRU ITURRIAK

Makinen ideia da berez gurea eta gu arduratuko gara hauen hedapenaz, baina nondik lortu enpresa abian jartzeko eta gero mantentzeko dirua?

Bada, gaur egun, ekintzaileentzako hainbat diru-laguntza egonik horietara joko dugu lehen pausoak emateko. Besteak beste, Lanbidek LANBIDEk ekintzaileei laguntzeko abian jarritako **diru-laguntzak**, DEBEGESAK bideratu eta banatu izan ditu Debabarrenean, baita Debegesak aholkularitza eta beharrezko duten laguntza eskaintzen die ekintzaileei euren proiektuak gara ditzaten. Azken diru-laguntza deialdian Enpresa-idea bat garatzeko laguntza, gehienez ere, 1.000 eurokoa izan zen sustatzaile bakoitzeko eta enpresa-proiektu berriak abian jartzeko, berriz, gehienez ere 1.500 euroko laguntza eman zitzaion sustatzaile bakoitzari. Adina eta emakume izatea ere kontuan hartzen dituzte diru-laguntzak emateko orduan. Gure taldean denak emakume izanik hori izan daiteke laguntzak jasotzeko beste arrazoi bat. Beste hainbat erakundek (Udala, Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza) ere enpresa motaren arabera ematen dituzte laguntzak, besteak beste, emakumeei zuzendutako zerbitzu bat izanik baliteke diru-sariak izatea horrelako enpresentzat. Enpresa herrian bertan edo ibarrean kokatzeagatik ere ematen dituzte ekintzaileentzat laguntzak.

Behin abian jarrita makinen **alokairuak, salmentak eta erabiltzaileen ordainketak** izango dira diru iturri nagusiak. Izan ere, gure bezeroei makinak alokatzeko zein erosteko aukera emango diegu. Alokatzeko dutenek hasieran fidantza bat eman beharko dute eta ondoren hilean-hilean ordaindu kuota. Makina erosten dutenek, berriz, makinarengatik ordaintzen dutena izango da diru-sarrerara enpresarako. Beti ere, kontuan hartu behar da erosi zein alokatu ondorengo berrikusketa edo zaintza zerbitzua izango dituztela.

Horrez gain, **erabiltzaile** bakoitzak makina erabiltzeko txanpona sartu beharko du eta **diru** hori ere gure iturri litzateke.

Bestalde, **enpresako kideok** bideari ekiteko ezinbestekoa izango da bakoitzak diru kopuru zehatz bat jartzea **norbere poltsikotik** lehen makinak egiteko eta zabaltzeko.